

elkarte

58

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2023ko UZTAILA

www.elkartean.org



elkartean

elkartean@elkartean.org

Bizi eredu

INDEPENDENTEA

**Euskadin
hedatzea**

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoen erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetatua

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

KEMEN

Pertsona ezinduen kirol kluba

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikoaren Elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrozefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuek

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundaioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

ARGITARATZAILEA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua

OROKORRA

Bizi eredu independentea euskadin hedatzea

4

- 5** • % 45eko desgaitasunarekin edo handiagoarekin erretiro aurreratua.
- 6** • Enpleguari buruzko Euskal Lege proiektuari egindako ekarpenak eta agerraldia.
- 7** • Ikasketetan laguntzeko 400 euroko sorospena .
 - Unibertsitatean laguntzak handitzeari buruzko arartekoaren txostena.
- 8** • Desgaitasuna duten pertsonentzako diru sarrerak bermatzeko Lege Berriaren aldaketa garrantzitsuak.
- 9** • Desgaitasuna baloratzeko baremo berria.
 - Lehentasunen proposamena udal eta foru hauteskundetarako.
- 10** • Desgaitasuna duten pertsonentzat baliabide ekonomikoek duten garrantziari buruzko azterlana.
- 12** • Hezkuntza Lege proiektua.

ARABA

- 13** • Berdintasunerako foru arau proiektua.
 - Arabako ESI-ko zerbitu ginekologikoak.
 - Hauteslekuak.
- 14** • Principal Antzokia eraberritzea.
 - Hezkuntzako esku hartzeak.
- 15** • Batzar Nagusia.
- 16** • Forondako aireportua.
 - Aparkalekuak.
 - Audio.

BIZKAIA

- 17** • Fekoorreko Zuzendari berria.
 - Nire eskubideen alde, berdintasunean.
 - Elkartea-Jaia.
 - Oztoporik gabe.
 - Baliabide irisgarriak.
- 18** • Mamografo inklusiboak.
 - Familia bat osatzeko dugun eskubidearen.
 - Irisgarritasuna.
 - Lege dugu.
- 19** • Mentoretza Sozialeko programa.
 - Ondareari buruzko Europako jardunaldiak.
 - Enpresa arruntean lan egiteko eskubidea.
- 20** • Laguntza pertsonalari buruzko gidaliburu erabilgarria.
 - 2022ko jarduera memoria.

GIPUZKOA

- 21** • Elkartuz jardunaldia aniztasunetik gizartea eraldatzen.
 - Elkarbidean 2023 programa.
- 22** • Lan ildoen aurkezpena.
- 23** • Gure webgunea berritu dugu.
 - Mendekotasunaren prestazio ekonomikoiei buruzko dekretua.
- 24** • Hondartzetarako irisgarritasunari buruzko partaidetza-prozesua.
 - Enplegu publikorako eskubidea urratzea.

BIZI EREDU

INDEPENDENTEA

EUSKADIN

HEDATZEA

Elkarteanek “Euskadin desgaitasuna duten pertsonentzako bizi-eredu independente baten oinarriak ezartzeko diagnostikoa” egiten parte hartu du. Lehen fasean, Elkarteanek eta Eusko Jaurlaritzako Berrdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak landu dute dokumentua, eta, ondoren, arlo horretan inplikaturako eragileek partekatu, garatu eta onartu dute. Horien artean daude, Eusko Jaurlaritza bera eta bere sailak, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak eta foru-aldundiak.

D iagnostikoaren helburua izan da Euskadin desgaitasuna duten pertsonen erreferentzien eta egoeraren oinarri-esparru bat zehaztea, bizi-eredu independentea garatzea eta ezartzea sustatzeko.

Horrela, honako hau ezartzen da: modu independentean bizitzeak esan nahi du “*desgaitasuna duten pertsonek behar dituzten baliabide guztiak izan behar dituztela aukerak izan eta beren bizitzak kontrolatu ahal izateko, eta bizitzan eragiten dioten erabaki guztiak hartu ahal izateko, betiere gizartean erabat eta benetan parte hartuta*”. Beraz, pertsonen aukera askearekin lotura estua duen kontzeptua da, beren bizimodua eta eguneroko jarduerak ere barne hartzen dituena. Alde batetik, norbanakoaren alderdia, hots, non, nola eta norekin bizi aukeratzeari buruzkoa hartzen du kontuan, eta bestetik, alderdi soziala,



komunitatearen partaide izan eta bertan parte hartzeari buruzkoa.

Dokumentuak, nagusiki, bizimodu **independenterako** eskubidearen banakako alderdia jorratzen du, eta hori gauzatzeko beharrezko elementu hauek ezartzen ditu:

- Laguntza pertsonala
- Bizimodu independentea izateko beste zerbitzu eta laguntza batzuk
- Behar besteko baliabide ekonomikoak
- Etxebizitza duina, egokia eta irisgarria
- Laguntza-produktuak

Elementu horiek Euskadin duten egoerari buruzko diagnostiko bat egin ondoren, dokumentuak **orientabide-multzo bat proposatzen du, bizi-eredu independentea bultzatzeko**. Proposamenak orokorrak dira, bai eta honako arlo hauei buruzkoak ere: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, behar besteko baliabide ekonomikoak bermatzea, etxebizitza, osasun-sistema, laguntza-produktuak, laguntzak eta aukerak dinamizatzea edo bizimodu independentearen adierazle-sistema ezartzea.

% 45eko desgaitasunarekin edo handiagoarekin erretiro aurreratua

Ministroen Kontseiluak, 2023ko maiatzaren 16an, % 45eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen erretiro aurreratua hartzeko aukera hobetzen duen errege-dekretua onartu zuen. Hona hemen aldaketa nagusiak:



- % 45eko desgaitasuna diagnostikatzen denetik eskatzen diren kotizazio-urteak 15 urtetik 5 urtera **murriztuko dira**, eta beharrezkoa izango da gutxieneko kotizazio-aldiaren pareko denbora efektiboa lan egin izana.
- Araubide bera **aplikatuko** zaie desgaitasuna eragiten duen patologia bat baino gehiago duten pertsoneri, patologia guztiak kontuan hartuta % 45eko desgaitasuna gainditzen badute.
- Desgaitasunaren **egiaztapena**, foru-aldundien desgaitasun-aitorpenaren bidez ez ezik, aurreikusitako patologia-ren bat izan duela eta patologia horiek noiz hasi edo agertu diren egiaztatzen duen txosten mediko baten bidez ere egin daiteke.
- Erretiro-adina murriztea eragiten duten patologien zerrenda eguneratzeko prozedura arinagoa eta errazagoa **jarri da abian**.

% 45etik % 64ra bitarteko desgaitasuna duten pertsonen aurre-erretiroa hartzeko baldintzak

ESKAERA EGITEN DEN UNEAN ALTAN EGOTEA /// 56 URTETIK AURRERA AURRE-ERRETIROA HARTZEA

€ **2009KO DEKRETUA**

Kotizazioa: **15 urte** desgaitasunarekin

GAIXOTASUN BAKAR BATEK ERAGINDAKO DESGAITASUNA

IMSERSOK edo AUTONOMIA ERKIDEGOEK egindako desgaitasun-egiaztagiria behar da

€ **2023KO ALDAKETA**

Kotizazioa: **5 urte** desgaitasunarekin

DESGAITASUNA GAIXOTASUN BAT BAINO GEHIAGOREKIN EGIAZTATU ahal izango da
Gaixotasunen zerrenda luzatu ahal izango da

Egiaztagiri mediko batekin egiaztatu ahal izango da desgaitasuna

ITURRIA: Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa GRAFIKOA: Carlos G. Kindelán

ENPLEGUARI BURUZKO EUSKAL LEGE

PROIEKTUARI EGINDAKO EKARPENAK

ETA AGERRALDIA

Maiatzaren 8an Elkarteanek agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarreko Lan eta Enplegu Batzordean, bere jarrera jakinarazteko eta Enpleguari buruzko Lege Proiektuari egindako ekarpenak azaltzeko.

Premisa gisa, enplegu-eredua eraldatzeko beharra nabarmendu genuen, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan eta 8. Oharrean ezarritakoa betetzeko; izan ere, ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan askatasunez aukeratutako lana egiteko eskubidea aitortzen du. Horren harira, enplegu babestua ez da lanerako eskubidea pixkanaka gauzatzeko neurritzat hartzen, baizik eta neurri segregatzaile eta ez oso inklusibotzat. Horregatik, honako hau proposatu genuen:

- Irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren definizioa **txertatzea** gizarte-inklusioa eta aukera-berdintasuna enplegu duin baterako funtsezko elementu gisa, bereziki zaurgarriak diren kolektiboentzako ekintza positiboko neurriak alde batera utzi gabe.
- Lan-merkatu arrunta eraldatzeko aukera emango duten neurri egokiak **ezartzea**, merkatu horren aniztasuna eta lehentasunezko arretako kolektiboak osatzen dituzten pertsonen sarbidea bultzatzeko.
- Lan-ingurune babestuetatik enplegu arruntera igarotzea **sustatzea**, behar den laguntza eta asistentzia berrmatzea alde batera utzi gabe.
- Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek enplegu-politika publikoaren diseinuan, inplementazioan eta garapenean **parte hartu** ahal izatea.

- Desgaitasuna duten pertsonen Lanbiden adierazitako laguntzen hornitzailea aukeratzeko duten eskubidea **bermatzea** (laguntza, diagnostikoa, plan integratu eta pertsonalizatua egitea, etab.), Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaileek emandako zerbitzu espezializatuak aukeratzera behartuta egon gabe.
- Hirugarren Sektorre Sozialaren **ordezkaritza** egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta enplegu-politiken eta Diru-sarrerak Berrmatzeko Euskal Sistemaren integratuta dauden neurri eta baliabideen hartzailerak izan daitezkeen kolektiboaren ordezkari direlako.
- Enplegu babesturako aurreikusitako laguntzak eta lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarrian sartzeko eta bertan gelditzeko baliabideak eta zenbaterakoak **orekatzea**.
- **Plan bat egitea** desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu ireki, inklusibo eta irisgarrian sartzeko, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoa betez.



IKASKETETAN LAGUNTZEKO 400 EUROKO SOROSPENA

Otsailaren 21eko 117/2023 Errege Dekretua argitaratu da, 2023-2024 ikasturterako familiaren errentaren eta ondarearen atalaseak eta ikasketetarako beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituena. Errege Dekretu horren III. kapituluan, ikasketetarako laguntzak eta hezkuntza-laguntza **espezifiko** behar duten ikasleentzako sorospenak arautzen dira.

Beste berrikuntza batzuen artean, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen eskolatzeak sortzen dituen gastu gehigarri orokorretarako **zenbateko finkoko sorospen** bat jasotzen du. Laguntza horren ezaugarria unibertsaltasuna da, hau da, familiaren errenta eta ondarea kontuan ez hartzea; laguntza 400 eurokoa da.

Elkarteanek egindako kontsultaren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi du sorospen hori Euskadin beka, laguntza eta sorospenen urteko deialdiaren bidez ezarriko dela.



UNIBERTSITATEAN

LAGUNTZAK

HANDITZEARI

BURUZKO

ARARTEKOAREN

TXOSTENA

Desgaitasuna duen ikasle batek aurkeztutako kexaren **ondoren**, UPV/EHUK berezko tituluko graduondoko ikasketak egiten laguntzeko pertsona bat jartzea ukatu zion, titulu ofiziala ez zela argudiatuta. **Arartekoak ebazpen bat eman du, eta, horren bidez, laguntzak unibertsitateko ikasketa guztietan jartzeko gomendatu dio unibertsitateari.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak Aukera Berdintasunerako Erregelamenduan oinarritu du bere eskaera, laguntzako hezkuntza-premiak dituzten ikasleak kontuan hartuta. Horrela, ikasketa horietara baldintza berdinetan sartzeko aukera bermatzen zaie desgaitasuna duten ikasleei, eta beren garapen profesionala hobetzeko aukera eskaintzen zaie, prestakuntza akademikoa osatzea ahalbidetzen duten berezko ikasketetarako sarbidearen bidez, gainerako ikasleekin gertatzen den modu berean.

Aipatutako erregelamenduaren arabera, laguntza-baliabideak ez aitortzeak desgaitasun-arrazoiengatiko diskriminazioa ekarriko luke.

Desgaitasuna duten pertsonentzako diru sarrerak bermatzeko

LEGE BERRIAREN ALDAKETA

garrantzitsuak



Apirilaren 1ean jarri da indarrean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Lege berria, eta, jarraian, desgaitasuna duten pertsonentzat dituen onorio nagusiak aipatuko ditugu:

1 Prestazioaren titular izateko **betekizunei** dagokienez, 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak salbuetsita daude “*modu independentean bizi behar izatetik gutxienez eskabidea egin baino urtebete lehenagotik*”, eta, era berean, salbuetsi egiten dira “*Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa izena emanda egotetik eskaera egin aurreko urtean*”.

2 **Ardurapean** adingabeak edo % 33ko desgaitasuna edo handiagoa edo mende-kotasun-kalifikazioa duten helduak izanez gero, aurretiko erroldatze-aldia urtebetekoa izango da, eta ez hiru urtekoa.

3 **Pentsiodunek salbuespenezko** bizikidetza-unitateak osatzen jarraitzen dute, eta ez dira zenbatzen gainerako bizikiddeen diru-sarrerak eta ondarea (ezkontidearenak edo haiekin antzeko lotura duten pertsonenak izan ezik). Eta hemendik aurrera, ardurapeko seme-alabagatiko familia-prestazioaren eragilea pentsiodun izatearekin parekatuko da. Beraz, ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa jasotzen duten pertsonak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izan ahalko dira, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte.

4 Prestazioaren **zenbatekoa** hauen batura izango da: oinarritzko zenbatekoa, bizikidetza-unitateko kide bakoitzeko banakako osagarriei dagozkien zenbatekoa eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriei lotutako osagarriei dagozkien zenbatekoa; horien artean daude pentsiodunek edo % 33ko desgaitasuna edo handiagoa edo mendekotasun-kalifikazioa duten pertsonak osatutako bizikidetza-unitateak. Baina ez dute arrazoi horienagatik pentsiorik jaso beharko.

5 Zerbitzu elektronikoen eta prozedurak izapidetzeko erabilgarri dauden aplikazioen irisgarritasuna **bermatzen da**, eta eskainitako informazioa eskuragarria eta ulergarria dela ziurtatzen da.

6 Desgaitasuna duten pertsonen beren burua ulertarazteko behar duten laguntza edo **euskarriak** emango zaizkie.

Azaldutakoa oinarri hartuta, **Elkarteanek bereziki garrantzitsutzat jotzen du** ardurapeko seme-alabagatiko familia-prestazio bat eragiten duen desgaitasuna duten pertsonen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten aztertzea, hala badagokio dagokion eskaera izapidetzeko. Era berean, gaur egun diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten baina pentsiodun ez diren pertsona desgaituek **Lanbideri jakinarazi behar diote desgaitasuna dutela**, dagokion osagarria aplikatzeko.

Desgaitasuna

baloratzeko

baremo berria

2023ko apirilaren 20an jarri zen indarrean urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua, Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena. Hori dela eta, *eginaren eginenez*, fekoor eta elkartuk tresna berri horren implementazioari buruzko informazioa eskatu die foru-aldundiei, bai eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen informazio eta orientazio egokia eman ahal izateko behar den prestakuntza ere.

Hala ere, **gure etsipena eta kexa adierazi behar dugu**; izan ere, foru-aldundietako bat ere ez da harremanetan jarri **Elkarteanekin**, desgaitasunaren arloko politika eta neurrietarako hain garrantzitsua den gai batean koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

Horregatik, foru-erakundeekin batera, eragiten diguten politika ofizialetan eragile aktibo, laguntzaile eta solaskide gisa

parte hartzea **eskatzen dugu**, desgaitasuna duten pertsonen aldeko behar eta erronka sozialak lantzeko, horiek eraginkorrakoak eta egokiagoak izango direla bermatze aldera.



Lehentasunen proposamena udal eta foru hauteskundetarako

Udal- eta foru-hauteskundeak direla eta, **Elkarteanek** alderdi politikoei dei egin die beren kudeaketa politikoa edozein diskriminazio mota desagerrarazteko eta desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzarako, enplegurako, kulturarako eta gizartean bizitzeko eskubidea bermatzeko neurriak txerta ditzaten.

Zehazki, honako hauek eskatu ditugu: **irisgarritasun unibertsala bermatuko duten udal-ordenantzak**; laguntza pertsonalerako behar besteko prestazio ekonomikoa; autonomia pertsonalerako laguntza-produktuen behar besteko eskaintza; arreta integrala emateko beste administrazio batzuekiko koordinazioa oinarritzko gizarte-zerbituetan zentralizatzea; gure beharrei erantzungo dien etxez etxeko laguntza-zerbitzua, eta desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuko duten hobari eta kenkari fiskalak.

Era berean, **eskatu dugu** foru-araudietan dauden diskriminazioa desagerrarazteko, hau da, desgaitasuna duten pertsonen zaintzaila egin ahal izatea, enplegu arrunta lortzeko jarduketak gauzatzea, eta udal-ordenantzak bateratzea aparkaleku-txartelak erabiltzeko irizpideei dagokienez, eta horiek behar bezala erabiltzen direla kontrolatzea.

Proposamen guztietan genero-ikuspegia sartu da, eta eragiten diguten politiketan parte hartuko dugula bermatzeko beharra adierazi da, betiere Hirugarren Sektore Sozialaren interes orokorreko jarduerak bermatuz.

Desgaitasuna duten pertsonentzat baliabide ekonomikoek duten garrantziari buruzko azterlana

Elkarteanek, Gizarte Informazio eta Ikerketarako Zerbitzuarekin (SIIS) lankidetzan, Euskadin desgaitasuna duten pertsonen egoera ekonomikoa aztertzen duen azterlan bat egin du, eta, horretarako, desgaitasunaren gainkostua, desgaitasuna duten pertsonen diru-sarreraren egoera eta haientzat dauden prestazio ekonomikoak aztertu ditu.

Beraz, lanak funtsezko alderdi bat aztertzen du modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko eskubidea gauzatzeko. Eskubide hori Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan aitortzen da, eta eskuarki eskubide hori gauzatzeko oztopo gaindiezina bihurtzen da.

Hauek dira azterlan horretako ondorioz garrantzitsuenak:

1 Desgaitasunak gainkostu ekonomiko bat dakar, eta horren kuantifikazioa aldatu egiten da honako hauen arabera: desgaitasun mota, intentsitatea, etxekoen unitatearen osaera edo etxekoen unitateko diru-sarrerak, eta zuzeneko eta/edo zeharkako kostuak. Hala, arlo horretan egindako azterketen ondorioz, gainkostua 2.874 eurotik beherakoa da, eta 23.460 eurotik gorakoa.

2 Desgaitasuna duten bost pertsonatik batek (% 22,7) soilik jasotzen ditu lan-jarduerak eta/edo jarduera ekonomikoak sortutako diru-sarrerak; ehuneko hori, aldiz ia % 60koa da (% 58,6) desgaitasunik ez duten pertsonen artean.

Desgaitasuna duten pertsonen bostenak (% 21,8) kotizazio gabeko gizarte-babeseko prestazioak eta laguntzak jasotzen ditu; aldiz, desgaitasuna ez duten pertsonen % 6,2k jasotzen du horrelako prestazio edo laguntzaren bat. Adinaren arabera, 18-24 urte bitarteko desgaitasuna duten pertsonen % 42,0k jasotzen ditu diru-sarrera horiek (desgaitasunik ez dutenen % 5,4k), eta 25-34 urte bitartekoen % 30,1ek (desgaitasunik ez dutenen % 5,4k).

3

Diru-sarreraren bat jasotzen duten desgaitasuna duten pertsonen eta gainerako herritarren diru-sarreraren arteko aldea 4.700 eurokoa da (23.204 € eta 27.905 €, hurrenez hurren). Lanerako adinean dauden pertsonak kontuan hartuz gero, gazteenen segmentuan izan ezik (18-24 urte), mota horretako diru-sarreraren batez besteko mailan ikusten diren desberdintasunak oso handiak dira. Aldeak 8.000 euro eta 12.500 euro bitartekoak dira, kontuan hartzen den adin-taldearen arabera.

4

Desgaitasuna duten pertsonen % 24,2 pobrezia-arriskuko egoeran dago Euskadin, eta egoera horretan dauden desgaitasunik gabeko pertsonen ehunekoa, aldiz, % 17,4koa da; desgaitasuna duten pertsonen % 6,5 gabezia material larriko egoeran dago, eta egoera horretan dauden desgaitasunik gabeko pertsonen ehunekoa, aldiz % 3,5koa da; desgaitasuna duten pertsonen % 29,9 pobrezia- eta bazterketa-arriskuko egoeran dago, eta egoera horretan dauden desgaitasunik gabeko pertsonen ehunekoa % 19,5koa da.

5

Datuek erakusten dutenez, **neurri berritzaileak bultzatu** behar dira inplikaturako sistemetan (diru-sarreraren bermea, pentsioak, zergak, lana, etab.), alde batetik, desgaitasun-egoerei lotutako gailuzko arintzeko, eta, bestetik, desgaitasuna duten pertsonentzako diru-sarreraren maila handiagoa bermatzeko; modu horretan, bizimodu independentea lortzeko proiektuak gauzatu ahal izango dituzte. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera.


Azterlanaren helburuak eta emaitzak kontsultatzera animatzen zaituztegu, **Elkarteanen web orrian** argitaratuta baitago.

BERDINTASUNERAKO FORU ARAU PROIEKTUA

Eginaren eginezek ekarpenak aurkeztu dizkio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arau Proiektuari, **Lurralde Historikoko desgaitasuna duten emakumeen errealitatea txertatzeko.**

Hala, **hobekuntzak aurkeztu dira** arauaren xedeari, helburuei eta printzipio orokorrei buruzko artikuluetarako, desgaitasuna duten emakumeen beharrak zeharka landu daitezzen eskatzeko. Halaber, Aldundiak berak berdintasunaren arloko foru-politikei dagokionez dituen funtzioei, antolaketari eta finantzaketari buruzko artikuluei ekarpenak egin zaizkie.

Azpitarratu da beharrezkoa dela Arauan esparru inklusibo eta berdintasunezkoa kontuan hartuta eskubide hauek txeratzea: parte hartzeko eskubidea, zerbitzu eta baliabideetan irisgarritasun unibertsal osoa izateko eskubidea, ikuspegi intersektzionala duen genero-ikuspegitik lan egiteko eskubidea, eta emakume guztien beharrak eta egoera aintzat hartzeko eskubidea osasunaren, enpleguaren eta indarkeria matxistaren arloetan, besteak beste.



ARABAKO ESI-KO ZERBITZU GINEKOLOGIKOAK

Eginaren eginezek Arabako ESIRA jo du, eta Gasteizko Salburuako osasun-zentroko emakumeei arreta emateko instalazioetarako irisgarritasuna eskatu du. Eraikinari dagokionez, zentro moderno da, eta Emakumeentzako Arreta Eremua du beheko solairuan. Korridore zabal bat du, eta bertan daude emaginaren eta ginekologiako kontsultak. Kontsultetako atea zeharkatzen duzunean **hasten da arazoa**; izan ere, bulego estu batera sartzen zara, miaketa-gelaren ondoan. Gela hori txiki-txikia da, eta dituen elementuekin ez da irisgarria. Gainera, **ez du inolako** mobilizazio-elementurik, ezta desgaitasun fisikoa duten emakumeentzako laguntza-produkturik ere.

HAUTESLEKUAK

Maiatzaren 28an egindako udal- eta foru-hauteskundeetan egiaztatu ahal izan zen hauteskunde-kabinek ez dutela betetzen irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia. **Besteak beste, horien barruan, boto-txartelak 90 cm baino askoz ere gorago jarri ziren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) arabera 90 cm-tara jarri behar dira gehienez.**

Horren ondorioz, joan-etorrietarako gurgil-aulkia behar dugun mugikortasun urriko pertsonen sufragio unibertsal, aske, berdina, zuzen eta sekreturako dugun eskubidea (Espainiako Konstituzioak 68.1 artikuluan aitortzen du) mugatu zitzaizun.

Horrenbestez, Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari eskatu diogu, datozen hauteskundeetan, hautesleketan jarriko diren hauteskunde-bozketarako kabinak **irisgarriak** izan daitezela, sufragio unibertsal, aske, berdina, zuzen eta sekreturako eskubidea bermatzeko, erabiltzen duena mugikortasun urriko pertsona den edo ez alde batera utzita.

PRINCIPAL ANTZOKIA ERABERRITZEA

Gasteizko Udaleko Arkitektura Zerbitzuko profesionalekin bildu gara, Principal Antzokia eraberritzeko eta handitzeko proiektuari buruzko informazioa biltzeko. IDOMek idatzitako proiektua aurkeztu digute.

Une honetan aurreratu ahal dizuegu sarbide bakar batetik sartuko dela barrura, eta bertan, **lehen zegoen plataformaren ordez, jasogailu bertikal bat jarriko dela**. Halaber, **erreserbatutako guneak** egongo dira besaulkien patioan eta palkoetan. Era berean, erreserbatutako guneak egongo dira lehentasunezkoetan. **Bainugela eta aldagela** egokituak egongo dira. Iradokizunak egin ditugu Antzokian programatutako ikuskizunetara maiz joan zaretenok helarazi dizkiguzuen ekarpenekin, besteak beste honako hauek: eszena-esparrua kanpoko zarartetatik isolatzeko palkoetako gortinen ordez lortu nahi den hobe-kuntza akustiko hori lortu ahal izateko beste sistema bat erabiltzea (baina ez dadila palanka bat izan), gortina horiek manipulatzeko ezi-nezkoa baita gure kolektiboko pertsonentzat.

HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAK

eginaren eginezek aurten ere ikastetxeak bisitatuko ditu “Eskolara egina-ren eginezekin” programaren barruan. Desgaitasuna duten pertsonen ikasgeletan esku hartuko dute, eta irudi positiboak eta emakumeen eta gizonen askotariko errealitatearekin kontaktua izateko, errealitate hori ezagutzeko eta errealitate hori errespetatzen duten irudi positiboak sortzea sustatzeko, mito eta estereotipo negatiboak baztertuz. Eskola-eremuan giza aniztasuna errespetatzeko eta baloratzeko balioak sustatzen lagundu nahi dugu. Horretarako, lehenik eta behin, **eskola inklusibo** bat bultzatu nahi dugu, non ikasle eta hezkuntza-komunitate guztiak beren indibidualtasuna errespetatu, balioetsi eta aintzat hartzeko baldintzetan garatuko diren, bai haientzat, bai haien familientzat.

Jarduera honekin honako helburu hauek lortu nahi dira:

- **Bizikidetzaren eta hezkuntza sustatzea** ikastetxeetan eta ikasgeletan aniztasuna eza-gutzeko, ulertzeko eta errespetatzeko.
- Desgaitasun motak **ezagutaraztea**.
- Haurrek desgaitasuna duten haurren errealitatea, mugak eta **gaitasunak** ezagutu ahal izatea, eta gai horri buruz jakin nahi duten guztia galdetzeko aukera izatea.
- Desgaitasuna duten pertsonen mugei eta **gaitasunei buruzko aurreiritziak haustea**.

Ikasle bakoitzari Auzokideak gida didaktikoaren, aniztasunaren komikiaren, kartelen, liburuxken, hainbat kanpainatako eranskailuen eta baliabideen gidak emango zaizkio, besteak beste.

BATZAR NAGUSIA

Maiatzaren 31n Urteko Batzar Nagusia egin genuen. Aurten ohiko eta ezohiko deialdia egin dugu. Bi batzarrak Gasteizko Simon Bolivar plazako 9. zenbakiko beheko solairuan dagoen egoitzan egin ziren.

Ohiko Batzarrean, ohi bezala, gai-zerrendako arauzko puntuak aurkeztu genituen. Horrela, azken Batzarraren Akta onartu zen, eta ondoren 2022ko kontuak eta Jardueren Memoria aurkeztu ziren. Biak onartu ziren. Gero, 2023rako proiektua eta aurrekontua aurkeztu ziren, eta erakundeak parte hartzen duen proiektuak aztertu ziren. Horietatik, **11 elkar-te-programa** dira azpimarragarrienak:

- ➔ **bizimodu independentea**
- ➔ **emakumea eta aniztasuna**
- ➔ **hezkuntza, haurrek eta gazteak**
- ➔ **gizarte-komunikazioa**
- ➔ **irisgarritasuna sustatzea**
- ➔ **lanari ekiten**
- ➔ **herriz herri**
- ➔ **kolektiboarekin hartu-emana**
- ➔ **proaktibazio soziala eta sareko lana**
- ➔ **osasuna**
- ➔ **aholkularitza juridikoa**

Estatutuetan ezarritakoa betez, urte bakoitia denez, presidentearen, diruzainaren eta bi batzordekideren **karguak berritu ziren**, eta Zuzendaritza Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- **Presidentea: Blanca Esther Pinedo**
- **Presidenteordea: Luz Sabina Adrianzén**
- **Diruzaina: Igor Navarro**
- **Idazkaria: Soraya Pontejo**
- **Batzordekidea: Said Taya**
- **Batzordekidea: Ana Napal**

- **Batzordekidea: Arantza Magdaleno**
- **Batzordekidea: Ibon Guisado**

Azkenik, zuekin batera solasaldia egin genuen, eta kezkatzen zaituzteten eta elkarrekin landuko ditugun gaiak jakinarazi zenizkiguten, hala nola mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuetan zaldi fiskalen muga

handitzeko beharra dagozkien salbuespenak jasotzeko eskubidea izateko; eraberrituta baina irisgarritasunik gabe irekitzen diren lokalak *-baita jarduera aldatuta ere-*; gizarte-etxetako ateekin izandako zailtasunak; aparkaleku-txartelak, aparkaleku-plazen diseinua, zinema-aretoen irisgarritasun falta, eta abar. Eskerrak eman nahi dizkizuegu elkar-te-bizitzan izan duzuen parte-hartzeagatik eta inplikazioagatik, kolektiboaren eskubideetan aurrerapenak lortzen joateko.

Elkartearen izena euskaraz aldatu behar zelako egin zen **Ezohiko Batzarrerako** deialdia, kolektiboa aipatzeko oraindik ere “gutxitasun” terminoa agertzen baitzen. **“Desgaitasun”** terminoagatik ordezkatzeko onartu zen, eta aitortu zen oraindik ez dugula kolektiboaren izendapenari buruzko terminologiari buruz hausnartu eta eztabaidatu; gai hori aurrerago landuko da.

Bai euskarazko izen-aldaketa, bai Zuzendaritza Batzorde berriaren osaera, eta 2022ko Urteko Kontuen onarpena (*Onura Publikoa*) Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroari jakinarazi zaizkio, behar bezala jasota gera daitezten.



| Araba |

FORONDAKO AIREPORTUA

eginaren eginez AENari (Sociedad Mercantil Estatal SA) zuzendu zaio, Gasteizko FORONDA aireportuan irisgarritasuna hobetzeko eskatuz.

Hegazkinetara sartzeko, eskailerak igotzeko beldar-aulki bat erabiltzen da, eta oso **arri-kutsua da mugikortasun urriko pertsonentzat** eta haiei hegaldian laguntza ematen dieten pertsonentzat. **Gure ustez, sistema hori ez da duina, ezta segurua ere**, eta aireportuari Ambulift guraize-kamioi autonomo bat ematea eskatu dugu, hegazkinetarako irisgarritasuna bermatzeko. Kontuan izan behar da Gasteizko Aireportuak bidaiarien hazkunde nabarmena izan duela; izan ere, 2023an hazkunde horri eutsi zaio, eta bidaiariak gehitu ere egin dira. Gainera, bidaiarien kopuruak gora egitea aurreikusten da.

APARKALEKUAK

Gasteizko Udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasunari eta Leire Zugazua auzo-sindikoiari eskatu diegu mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuek diseinu unibertsala ezar dezatela eta oztoporik gabeko espazioetan koka daitezela: piboterik, bankurik, paperontzirik, zuhaitzik edo senalerik gabe –*señale adierazleak erdian jartzen dira batzuetan*– edo mugikortasun urriko pertsonak ibilgailuetara igotzea eta ibilgailuetatik jaitea (gidaria zein bidaiaria izan) oztopatzen duen hiri-altzarien beste elementurik gabe.



LAUDIO

eginaren eginez Laudioko Udaleri zuzendu zaio, Laudioko Espazio Publikoa arautzen duen Ordenantza eta uztailearen 23ko TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatueta iristeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarri-zko baldintzei buruzko dokumentu teknikoa garatzen duena, ez direla betetzen salatuz, eta honako hau eskatzeko:

- bide publikoak oinezkoak ibiltzeko erabiliko direla **bermatzea**,
- ikusmen- eta/edo mugimendu-desgaitasuna duten pertsonen lehenetsia izatea bide publiko-tik **ibiltzean**,
- espaloiak eta oinezkoentzako guneak **ez okupatzea** oinezkoen ohiko zirkulazioa oztopatzen duten elementuekin.

Era berean, espaloiaren eta oinezkoen pasabidearen (galtzada) artean kota-diferentzia duten udalerriko zintarri guztien beharrezko zuzentzeko eskatu dugu.

FEKOORREKO ZUZENDARI BERRIA

Joan den otsailaz geroztik, gure Federazioak zuzendari berria du. Javier Gil García bilbotarra da, 52 urte ditu, eta telekomunikazio-ingeniaria da. 25 urte baino gehiago eman ditu industria-sektoreko hainbat enpresatan.

Gure erakundeko bazkide den aldetik, eta bildu duen lan-ezagutza guztiarekin, Javierrek bere gain hartu du Fekoor zuzentzeko erronka, desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten emakume eta gizonen erabateko gizarte-inklusioa lortzeko gizarteko esparru guztietan.



NIRE ESKUBIDEEN ALDE, BERDINTASUNEAN

Ehun pertsona inguruk kontzentrazioa egin zuten maiatzaren 19an Bilboko Plaza Biribilean, Fekoorrek deituta, bostere publikoei eskatzeko bete dezatela Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa.

“Nire eskubideen alde, berdintasunean” lelopean, parte-hartzaileek Konbentzioan jasotako eskubide batzuk laburbiltzen zituzten pankartak eraman zituzten: “Gauza on guztiak oztoporik gabe hasten dira”; “Nik ere garraio publikoan bidaiatu nahi dut”; “Laguntza pertsonala + prestazioak = bizimodu independentea”; “Etxebizitza duin eta irisgarri baten alde”; “Administrazio hurbileko eta irisgarri baten alde”; “Desgaitasuna dugun pertsonak ere zaindu egiten dugu” edo “Enplegu duinari alde eta baldintza berberetan”.



Urtero bezala, joan den ekainaren 18an, Fekoorrek eta Fekoor osatzen duten elkarteek elkarte-jaia ospatu zuten Bilboko Casilda Iturrizar parkean. Bertan, bizitza politikoan eta elkarrizketa zibileko foroetan parte hartzea aldarrikatu zuten, eskubide-berdintasuna, ahalduz eta komunitatean bizimodu independentea gauzatzea lortze aldera.

OZTOPORIK GABE

Fekoorrek eta gure elkarteetako kideek ekainaren 16an eta 17an Bilbao Arena estadioan egin zen **Oztoporik gabe ekimenaren 11. edizioan** parte hartu zuten. Ekitaldi horretan osasun-arloko profesionalak, laguntza teknikoaren arloko enpresak, fundazioak eta erakunde publikoak izan ziren, besteak beste.

BALIABIDE IRISGARRIAK

Fekoorreko Berdintasunaren aldeko Emakumeen Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiari eskatu dio bere webgunean adieraz dezala, Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeria matxistako egoerei arreta emateko foru-udal- eta mankomunitate-zerbitzuen sareko baliabide bakoitzaren irisgarritasuna.

Horretarako, aipatutako baliabide guztietatik bilduko du informazio hori Behatokiak.

MAMOGRAFO INKLUSIBOAK

Fekoorrek urtarrilean hasi zuen osasunaren arloko lankidetzak, mamografia-proba egiteko uenean desgaitasuna duten emakumeen arreta hobetzeko.

Lankidetzak horren oinarria izan da Osakidetza Bizkaiko zenbait osasun-zentro eta ospitaletan ezartzen ari den mamografo egokituetakoa bat testatzea, desgaitasuna duten emakumei ematen zaien arreta hobetzeko gomendio-gida bat egitea eta Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren esparruan proba hori egiten duten teknikariei prestakuntza ematea.



FAMILIA BAT OSATZEKO DUGUN ESKUBIDEAREN ALDE

Familien Nazioarteko Eguna zela eta, joan den maiatzaren 15ean Fekoorrek manifestu bat zabaldu zuen. Bertan, botere publikoei eskatzen diegu neurri eta politika egokiak har ditzatela ordezkatzen dugun kolektiboak familia bat osatzeko, familiaburu izateko, senideen zaintzaz arduratzeko, eta zeregin horrek dakarren prestazio ekonomikoa jasotzeko duen eskubidea erabili ahal izan dezan.

IRISGARITASUNA

Fekoorrek 24 kexa, salaketa eta iradokizun jaso ditu aurtengo lehen bost hilabeteetan, hiri-irigarritasun, eraikuntza, etxebizitza eta garraioaren arloko Bizkaiko arazoengatik.

Gizarte-arloko aholkularitza eta sentsibilizazioari dagokionez, Txurdinagako LHIIri, Bilboko Berri Otxoa Ikastetxeari eta Biocruces Ospitaleari aholkuak eman dizkiegu lokal eta inguruneetarako sarbideak egokitu eta hobetzeari buruz. Horrez gain, hitzaldiak eman dizkiegu ikastetxeei eta Deustuko Unibertsitateari, eta ONCERen eta INOLABen jardunaldietan parte hartu dugu, besteak beste.

Bestalde, bilerak egin ditugu Bizkaiko Aldundiko Garraio Sailarekin, Bilboko Hiri Plangintzako Arloarekin eta Metro Bilbaorekin, eta bakoitzari bere eremuan hobetzeko proposamenak helarazi dizkiogu.

LEGE DUGU

“Lege dugu” lelopean, Fekoorren kanpaina bat egin dugu sare sozialetan apirilaren 24tik maiatzaren 3ra bitartean, erakunde publikoak eta, oro har, herritarrak kontzientziatzeko Espainiako Estatuak Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa betetzeko duen betebeharrak.

MENTORETZA SOZIALEKO PROGRAMA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Fekoorrek lan-kidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute Mentoretza Sozialeko programa bat abian jartzeko. Horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lagunduko diete gaitasunak hobetzen, beren hazkunde pertsonal eta sozialerako.

Programan gutxienez 60 pertsonak parte hartuko dute bi fasetan: apiriletik iraileira eta ekainetik abendura. **Mentoretzako hiru eredu egongo dira:** bata, binaka elkartuta laguntza ematea 6 hilabetez astero egingo dituzten topaketen bidez; bestea, 15 egunean behin taldean hartu-emanak izateko elkartzea; eta hirugarrena, arlo hauetako entrenamendu espezifikoak egiteko elkartzea: parte-hartze komunitarioa, aisia eta turismoa, informatika edo eguneroko bizitzako trebetasunak.

Doako programan parte hartzeko, hiru baldintza bete behar dira: 18 urtetik gorakoa izatea, desgaitasun fisiko eta/edo organiko izatea eta Bizkaian bizitzea.

Bidali datuak

bizinde@fekoor.com

helbidera edo deitu telefono hauetara:

432 67 43 edo 692 950 816



ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK

Fekoorrek Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan parte hartuko du aurtenera urrian. Botika Zaharretik (Zorrotzaurre) ibilbide turistikoa gidatua egingo du, irisgarritasun unibertsala kontuan hartuta.



ENPRESA ARRUNTEAN LAN EGITEKO ESKUBIDEA

Maiatzaren Lehen guztietan bezala, bizi-modu independenterako eskubidea bermatzeko desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen gainerako herritarren baldintza berberetan lan egiteko duten eskubidea aitortzea aldarrikatu du Fekoorrek aurtenera.

Gure ahalduzkoa lortzeko, **Fekoorren** eskatzen dugu laguntza publiko berberak eman diezazkigutela, bai enplegu babestua lortzeko, bai enplegu arrunta lortzeko. Izan ere, zentro berezietara 64,2 milioi euroko laguntza bideratu da aurtenera, eta enpresa arruntetara, berriz, 700.000 euroko laguntza.

| Bizkaia |

LAGUNTZA PERTSONALARI BURUZKO GIDALIBURU ERABILGARRIA

Fekoorren web orrian, Gizarte Lanaren atalaren barruan, desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonak erabil ditzakegun prestazio eta zerbitzu publikoei buruzko gidaliburu erabilgarriak eskura ditzakezue.

Azaldutako informazioaren artean, laguntza pertsonalari buruzko dokumentua dago. Foru-aldundiek **araутutako eta kudeatutako prestazio ekonomikoa** da, eta laguntzaile pertsonalak kontratatzeko gastuak ordaintzen ditu. Gainera, mendekotasuna duten pertsonen autonomia bultzatzen du eta pertsona horiek bizimodu independentea egin ahal izatea ahalbidetzen du.

Pertsona bat laguntzaile pertsonal gisa kontratatzeko gutxieneko ordu kopurua mendekotasun-mailaren arabera izango da: asteen 5 ordu III. graduan, asteen 4 ordu II. graduan eta asteen 3 ordu I. graduan.

Laguntzaile pertsonalak zerbitzu horiek ematen dituen enpresarekin egindako kontratu bidez emango ditu zerbitzuak, edo zuzenean, lan-kontratu bidez edo zerbitzuak emateko kontratu bidez. Kontratuan, zerbitzua emateko baldintzak eta jarraibideak jasoko dira.

Dirulaguntza hori jasotzeko, interesdunak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin jarri behar du harremanetan.

2022KO JARDUERA MEMORIA

azko abenduan, Fekoorrek 8.883 bazkide zituen eta 19 elkarte biltzen zituen. Programen eta zerbitzuen arabera, 1.895 pertsona artatu ditugu guztira (922 gizon eta 973 emakume). Zehazki, Gizarte Lanak 194 pertsonari lagundu zien, Aholkularitza Juridikoak 241 pertsonari, Laguntza Psikologikoak 64 pertsonari, Enplegu Programak 794 pertsonari eta Bizimodu Independentea egiten Laguntzeko Programak 37 pertsonari.



ELKARTUZ JARDUNALDIA, ANIZTASUNETIK GIZARTEA ERALDATZEN

Joan den martxoaren 16an Elkartzuz jardunaldiaren laugarren edizioa egin zen Tabakaleran (Kutxa Kultur plaza), aniztasunetik gizartea eraldatzen izenburupean.

Hasteko, aurkezpen instituzional egin zen. Bertan honako hauek parte hartu zuten: Mait Peña (Gipuzkoako Foru Aldundia), Lide Amilibia (Eusko Jaurlaritz) eta Aitziber San Roman (Donostiako Udala). Ondoren, José Manuel Fresnok Errege Patronatuak landutako “Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen egoerari buruzko eta etorkizuneko erronkei buruzko analisa” dokumentutik ateratako datu eta ondorio nagusiak azaldu zituen.



Gero, **elkartuk** gizartea eraldatzeko egiten duen lana azaldu zuen, eta jardun-ildoak hedatu zituen, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa benetan aplikatzea lortzeko erronka nagusiak identifikatu zituen.

Jardunaldiaren balorazioa oso positiboa izan zen, eta bereziki azpimarragarria da pandemia aldia igaro ondoren azterketarako eta eztabaidarako aurrez aurreko topagune bat berriro sortzeko aukera izan zela.

ELKARBIDEAN 2023 PROGRAMA

elkartuk, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuarekin lankidetzan, **Elkarbidean** programa antolatu du aurten ere, desgaitasuna duten pertsonen aisialdirako eskubidea bermatzeko.

Horren bidez, hainbat bidaiatxanda eskaintzen zaizkie programa honen bidez ez balitz baldintza berberetan bidaiatu ezingo zuten desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoziala duten pertsonen.

Elkarbidean 2023 Programak honako helmugak eskaintzen ditu:

BENIDORM, ekainaren 10etik 24ra

SALOU, uztailaren 1etik 15era

LANZAROTE, uztailaren 24tik abuztuaren 2ra

GALIZIA, abuztuaren 27tik irailaren 3ra

CALPE, irailaren 24tik urriaren 8ra

2022an 5 txanda antolatu ziren, eta, guztira, desgaitasuna zuten 64 pertsonak, beren 53 laguntzailek eta elkartuk jarritako 22 laguntzailek parte hartu zuten. Era berean, % 88,9k esperientzia ona edo oso ona izan zela adierazi zuen.



LAN ILDOEN AURKEZPENA

elkartuk hausnarketa-prozesu baten emaitza aurkeztu du. Prozesu horren bidez, gizartea eraldatzeko lana bultzatzeko garatu behar diren lan-ildoak zehaztu dira.

Ildo horiek printzipio hauetan oinarritzen dira: inklusioa, berdintasuna, normalizazioa, eskubideen ikuspegia, parte-hartzea, zeharkakotasuna, autoordezkaritza eta elkarrizketa zibila. Era berean, esparru hauek jorratzen dituzte, besteak beste: irisgarritasun unibertsala, hezkuntza, enplegua edo bizimodu independentearen eredua.

Gure ekintzak desgaitasun fisikoa duten pertsonengan, familiengan, erakunde publikoengan, erakunde pribatuengan eta, azken batean, gizarte osoarengan eragiten du.

Hauek dira lan ildoak:

BAT EGIN

(KONTZIENTZIAZIO SOZIALA): gure balioak defendatzeko eta gizarte osoarekin partekatze-ko jarduerak.

BIDELAGUN

(GARAPEN PERTSONAL KOMUNITARIOA):

boluntarioen bidez, ingurune komunitarioan hainbat jardueratan parte hartzeko behar den laguntza ematen dugu.

ELKARBIDEAN

(OPORRAK ESKUBIDE GISA): egonaldi, garraio eta jarduera irisgarriak, baliabide pertsonalen araberako prezioak eta behar diren laguntza pertsonal eta teknikoak dituzten bidaiak antolatzen ditugu.

EMAKIN

(BERDINTASUNA SUSTATZEA):

berdintasun printzipioa defendatzen dugu, desgaitasun fisikoa duten emakumeen eskubideen alde lan eginez.

ESKU-BIDE

(INFORMAZIOA, ORIENTAZIOA ETA ESKU-HARTZEA):

eskubideen erabilerari eta informazio-eskaerei erantzuten diegu, eta kasu bakoitzerako egokiak diren esku-hartze sozialak diseinatzen ditugu.

GUTAZ, GU

(ORDEZKARITZA ETA ERAGINA):

desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak ordezkatzeko eta defendatzen ditugu politika eta neurri publikoetan parte hartzeko, gogoeta egiteko eta erabakiak hartzeko eremu eta guneetan.

(H)IRISGARRI

(IRISGARRITASUN

UNIBERTSALA SUSTATZEA): irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren baldintzak betetzen direla bermatuko duten politikak eta neurriak bultzatzen ditugu.

HITZ(H)ARTUZ

(PARTE-HARTZEA SUSTATZEA):

desgaitasun fisikoa duten pertsonak beren eskubideen defentsan eta sustapenean parte har dezaten sustatzeko prozesuak bultzatzen ditugu.

NIK NEUK

(BIZIMODU INDEPENDENTEA SUSTATZEA):

Desgait Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako bizimodu independentearen eredua sustatzen dugu.

JAKINEZ EKIN

(IKERKETA ETA EZAGUTZA): ikerketa-proiektuak garatzen ditugu eta dibulgazio-materiala egiten dugu.

SARETZEN

(ELKARTE-MUGIMENDUA SUSTATZEA):

desgaitasunaren eremuan elkarte-mugimendua osatzen duten hirugarren sektore sozialeko erakundeen sustapena, lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzen dugu.

MEDEKOTASUNAREN PRESTAZIO EKONOMIKOEI BURUZKO DEKRETUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzen dituen dekretuaren aldaketa bat onartu du, eta prozesu horretan **elkartuk** alegazioak aurkeztu zituen.

Egindako aldaketaren berritasun nagusiak honako hauek dira:

- % 65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta duten pertsonak, betiere mendekotasunik ez **badute**, eta egokitasun-txostena badute, zaintzaile ez-profesionalak izan daitezke, familia giroan zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalak laguntzeko prestazio ekonomikoaren onuradun izateko.
- Osagarri bat **ezarri** da laguntza pertsonalaren kostu handietarako (2. edo 3. mendekotasun-gradua, kontratatutako laguntzagaritako hileko gastua indarreko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoaren % 150 baino handiagoa dela egiaztatzen badute).
- Aldi berean Etxeko Laguntza Zerbitzua eta okupazio-zentroak erabiltzeagatik jasotzen den zenbatekoa ez da % 20 murriztuko, eta aldi berean eguneko zentroa erabiltzeagatik jasotzen den zenbatekoa % 50 murriztu beharrean % 40 **murriztuko** da.



GURE WEBGUNEAN BERRITU DUGU

elkartuk web orri berritua estreinatu du, gizartea eraldatzeko egiten duen lanaren inguruko informazio eguneratuagoa eta osatuagoa eskaintzeko.

Halaber, hainbat eremutan egin **diren argitalpenak kontsulta daitezke** (gidaliburuak, parte hartzeko prozesuak, ikerketa-proiektuak, etab.), eta hainbat bide eskaintzen dira desgaitasun fisikoa duten pertsonen kontsultak, salaketak edo iradokizunak helarazteko. Era berean, **elkartun** izena emateko aukera sartu da webgunean bertan, aldian-aldian bidaltzen diren mezuak jaso ahal izateko.

Egiten dugun lana eta desgaitasunaren arloko albisteak egunero ezagutzeko, sare sozialen bidez jarrai gaitzakezu:

Instagram, Twitter y Facebook.




HONDARTZETARAKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO PARTAIDETZA-PROZESUA

elkartuk partaidetza-prozesu berri bat diseinatu du, HITZ(H) ARTUZ lan-ildoaren esparruan. Hondartza-denboraldian egingo da, eta Gipuzkoako hondartzetan desgaitasuna duten pertsonentzako bainatzeko laguntza-zerbitzuak aztertzea izango du helburu.

Zerbitzu horiek erabiltzen **dituzten desgaituek berek** zerbitzu horren hainbat alderdiri buruzko informazioa bilduko dute (hondartzarako sarbidea, zerbitzuaren informazioa, aurretiko erreserba, laguntzaileak, laguntza-produktuak, etab.), arlo horretan eskumena duten erakundeei zuzendutako hobekuntza-proposamenen azken txostena egiteko.

Informazioa biltzeaz gain, parte hartzeko tailerrak ere egingo dira, desgaitasuna duten pertsonak hondartzetako espazio eta zerbitzuetara besteen baldintza berberetan sarbidea izateko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea bermatuko duten ondorioetan eta jarduera-proposamenetan sakontzeko.

Partaidetza-prozesuan parte hartu nahi baduzu zerbitzua hobetzen laguntzeko, izena eman dezakezu gure webgunearen bidez, edo gurekin harremanetan jar zaitezke ohiko bitartekoen bidez.



ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKUBIDEA URRATZEA

Azken hilabeteetan, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legeak eta, zehazki, 59.1 artikulua Gipuzkoan izan duen betetze-mailari buruzko azterketa egin dugu. Artikulu horretan ezartzen da arian-arian administrazio publikoetan desgaitasuna duten enplegatu publikoen ehuneko bira iritsiko dela.

Horretarako, idazki bat bidali zaie Gipuzkoako 34 udali, informazioa eskatzeko langile publikoen kopuruari eta desgaitasuna duten langile kopuruari buruz, legezko betebeharraren betetze-maila egiaztatzeko.

Emandako erantzunetatik honako informazio hau ondorioztatzen da:

- **11 udalek baino ez dute erantzun**, hau da, informazioa eskatu zaien udal-erakundeen % **32,4k**.
- **Erantzunen % 36,4k ez ditu langile publiko guztiak aipatzen**, eta horrek eragotzi egiten du lege-erreserbaren betetze-maila zehaztea.
- Eskatutako informazioa eskaintzen duten udalen artean, % **57,1ek ez du betetzen langile publikoen % 2k** desgaitasun-egoera aitortuta izateko betebeharra.

Beraz, egiaztatu ahal izan da informazioa eskatu diegun udalen % 8,8k soilik betetzen duela desgaitasuna duten pertsonen aldeko % 2ko lege-erreserba, % 11,8k ez duela betetzen eta % 67,4k ez duela horri buruzko informaziorik ere eman.

Azken batean, **salatu dugu** administrazioek **sistematikoki ez dituztela betetzen** desgaitasuna duten pertsonen gutxieneko ehuneko bat izatera behartzen dituzten arauak, eta konpromiso eskasa erakutsi dutela lan-merkatu ireki, irisgarri eta inklusibo batean lan egiteko eskubidea bermatzeko hain garrantzitsua den gai bati heltzeko, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubidea baita.

